bidegileak

Gabriel Lertxundi (1908-1995)

Egilea:

XIPRI ARBELBIDE

Musikari esker aurrera

Gabriel Lertxundi (1908-1995).

«Fedegabeko eskolan»

Jean Baptiste Lertxundi Elissalde, *aita Gabriel* beneditarra, Ziburun sortu zen, *Mamizun* baserrian, 1908ko martxoaren 11n. Aita berriz, Jose Manuel Kandido Lertxundi Gesalaga, Orion, 1880ko azaroaren 27an, laborari familian. Amatxi, aitaren ama, Inazia Gesalaga, Aian. Honen aita eta ama, halaber, Jose Manuel Gesalaga, Aizarnan eta Antonia Irazu, Asteasun. Inazia Gesalaga Urruña Ziogaraiara etorri zen ihesi, bere hiru seme eta alabarekin, mutikoak Marokako gerlara ez joateko. Hiru anaiak lehoina bezain azkarrak ziren eta harri altxatzen aritzen ziren, josteta bezela. Inazia zen etxeko andearea: etxeko giderrak beti eskutan izan ditu. Eta fermuki.

Jose Manuel, 1907ko otsailaren 2an ezkondu zen, Mamizunera, Marie Elissaldekin Ziburuko elizan, Londaitzbehere bikarioak benedikatzen zituela. Bordariak ziren. Neguan, lan gutiago zelarik baserrian, harrobian aritzen zen aita.

Hiru seme izan zituzten, Jean Baptiste, Beñat, biak beneditarretan sartuko zirenak eta Zesar, Bastidan ezkonduko zena. Horrelaxe

Amatxi, Inazia Gesalaga, bere seme Manuel eta Jean Baptiste, Beñat eta Zesar bilobekin.

Mamizun sortu zen etxea.

Azkaingo *Zelaia* etxe honetan bizi izan zen.

Urruñako etxe honetara etorri zen ihesi bere seme-alabekin Inazia Gesalaga.

sustraitu ziren iparraldean hegoaldeko Lertxundi-Gesalagatarrak.

Beren amak, Marie Elissaldek, xuriketak egiten zituen dirua irabazteko. Zaldi karro batekin ibiltzen zen etxez etxe, xuritzekoak biltzen, eta gero, garbitu eta, beren jabeei itzultzen. Behin, enbata batek bustirik hoztu zen eta hortarik hil, 1922an.

Artean, *Mamizun*etik Azkaine *Zelai*ra joanak ziren. Haurrak Oletako eskolan ibili dira hiruzpalau urtez, Piarres Lafitte tikia bizi izan zen etxearen ondoan. Ez da Eiherabide Azkaingo erretorearen gustukoa hori: behin baino gehiagotan erraten die ez dutela joan behar Hiribarren errientaren «fedegabeko eskolara». Eskola hori famatua

Jose Manuel Lertxundi,
Aita Gabrielen aita.

Beñat Lertxundi beneditarra,
Aita Gabrielen anaia.

da, bere errienta gorri militantea delakotz. Gorri eta xurien gerla gorenean da eta 1906an izanak dira imitarioak: Gobernuak beretu zituen Elizaren ondasunak, apez-etxe, eliza eta guziak. Barnean zeuden guzien «inventorioa» egitea zuten euskaraz deitu «imitarioa».

Jandarma zenbaitekin etorri zen Donibaneko zerga biltzailea, Azkaingo elizaren imitarioa egiterat, bainan erretorea hor zen bere bikarioarekin eta azkaindar guziekin, gakatuak zituzten ateen aintzinean. Gobernamenduko gizonek etxera joan behar izan zuten herritarrak elizan

Zesar anaiaren ezkontza.

sartzen zirela, eskerrak bihurtuz Jaun Goikoarri, etsaiak ez zirelakotz elizan sartu eta denak gehiagokorik gabe iragan zirelakotz.

Bainan zenbait egunen buruan, jandarmak, hamar ziren eta infanteriako konpainia bat osoa berekin zeukaten, harmak eskutan. Elizak iduri zuen gotorlekua. Sartzeko, aizkora ukaldika hautsi zuten atea soldaduek.

Horra Gabriel Lertxundiren supazter xokoan neguan kondatzen diren oroitzapenak, bere haurtzaroan. Horrelakoak bizi guzirako gelditzen dira gogoan. Jakinez, bestalde, eskolak zuen arrakasta ttipia bezain handia zela, elizak zeukana amona Inaziarentzat.

Beneditarretara

Aita Martzel Etxeberri beneditarrak Azkainen predikatzen duen batez Jan Battittek erraten dio apez egitea gustukoa lukeela. «Nik ere bai», bazterretik Beñat, beste anaiak.

Zazpi hilabete berantago, aita Frantxoa Etxenike beren herritarrarekin, Lazkaora joaten dira: Belokeko beneditarrek Lazkaora ihes egin behar izan zuten 1903an, Frantziak fraileak debekatu zituelakotz bere lurretan. 11 urte ditu Gabrielek. Aste bat lehenago, elizako ezkilak jotzen ari izana da bera, berri on bat zabaltzeko: herriko hoinbeste gazte hil dituen 1914-18ko gerla izigarria bururatua

Belokeko komentua.

zela: 49 azkaindar gaztek galdua zuten bizia, 1.240 bizilagun zeuzkalarik herriak. Lau urtez, Lertxunditarren supazter xokoko beste solasgai bat izana zen gerla hori bere hil eta zaurituekin.

Ondoko urtean seminario ttipiko ikasketak egitera igortzen dute Belokera, frailez hustu komentuan sartuak baitira Frantziako gobernuak Larresorotik kanpo eman apezgaiak. Piarres Lafitte ere hor dago jadanik zenbait urte hartan. Nahiz eskolan ona den, Gabrielek huts egiten du batxiler diploma. Etsitua, beneditar biziari uko egin nahi dio.

Bera bezela azkaindarra den Ignace Grazi baita fraile gazten arduraduna, beste motibazio bat ematen dio: harmonium baten aurrean ematen du. Oso laster ikasten du tresna horren jotzen. Horrela hasi daiteke aita Gabrielen musikari bizia.

Fraileak 1926ko agorrilean itzultzen dira Belokera, Uztaritzen eraiki seminario berrian sartzen direlarik apezgaiak. Beneditarren jauntzia hartzen du urte horretako agorrilaren 24an: 18 urte ditu. 1932an apezten da.

Hain zuzen 1928an sartu da Beloken, Jean Lohiague apeza, seminario ttipian ezagutua zuen musika irakaslea. Honekin trebatzen da Gabriel musikan. Bost urte berantago frailetxea utziko duelarik irakasle musikatzale handi honek, komentutik bi urratsetan gelditzen zaio, lehenik Donamartiri eta gero Bastidako erretorea. Pianoa eta harmoniuma joiten ikasia zion bainan gomendatuz, tresnari baino gehiago, musikari interesa zedien, eskuak ez baititu tresna jotzeko egokiak.

Aita Gabriel Belokeko komentuan.

Musika irakatsi zion Jean Lohiague apaiza erdian.

Jerusalem eta Libanian

Apeztu eta urte baten buruan, Jerusalemera igortzen dute, bendetitarrek beren gain hartua duten siriar erritoko seminario ttipian irakasle izateko: Benoit Gariador euskaldunak eraiki zuen 1909an. Irakasle gehienak Beloke eta Montserratekoak dira. Oraikoan musikari bat behar dute eta Lertxundiri tokatzen zaio.

Apezgai horiek katolikoak dira, bainan elizkizunak oso diferentak dituzte, Elizaren lehen mendeetan bezelakoak. Gainera, beren mintzairan ari dira eta ez latinez. Sei urte egoten da hor, 1939 arte. Bigarren egonaldi bat egiten du apezgai haundiagoekin, Libanian aldi honetan 1947tik 1952 arte.

Siriar liturgia bereziaren kantuez lan handia egiten du: aspalditik gogoz kantatzen zituzten aireak paperean ematen ditu, polifoniaz apaintzen eta gaur egun oraino kantatzen dute bai arabez, bai siriarrez, Lertxundiren musika.

Handik joan eta ere, Beloketik ematen dizkie aholkuak bere lana segitu dutenei. Bainan, gisa berean, Palestinan ere aritzen da, Iratzeder bere fraile adiskideak idatzi kantika berrientzat musika egiten. Honek bertsu zenbait igortzen dizkion batez, hona da errantzuten dion Belokera:

Jesusalemeko apaizgaitegian, eskuinetik bigarrena.

Libanoko apaizgaitegian, bigarren lerroan, eskuinetik hirugarrena.

Ez aipa, othoi, hor gaindi badoazin azken uso-lertxunak: halako bat egiten baitiozu itsasoaz haraindian dagon zure adixkideari... Hortarik ezagut zein gogotik lotu naizen galdatu dautazun lanari. Nere asma ahalak ba othe du oraino eskual jiterik? Nehoni iduritzen baitzaut, Eskual Herritik urrun egonez ta egonez, arrozten ari zautala. Bertzalde hain bertzelako musikez bainaiz hemen goiz-arrats leher-asetua! Mahometanoen dorre goren gainetik othoitz oihularien kantu-balentriak (heien hatsa!...) Inguruetako etxe eta ostatuetarik radioen nardagarrizko karrankak ari dira arabez, turkoz, grekaz, armenianoz, iraniarrez. Karrikatik saltzaileen oihu kantu bitxiak... Seminarioan berean gure haurren kantu Sirianoak... Nola erdoil hortaz osoki garbi egon?... Huna beraz, airez aire, nere kantu berriak. Ez balinbadute laketzekorik, utz elgarretaratu arte, edo aita Donostia maiteari erakutsi, euskalago molda ala bozetan ezar ditzan.

Hirugarren aldikotz uzten du Beloke 1956tik 1958rat, Venezuelan, Caracasen, beneditar alemanek sortu berria duten San Josepe komentuan espainola dakien norbait behar baitute.

Hango liturgia batere ez zaio gustatzen : «jendea ixil ixila, bizpahiru xantrek gregoriano kantua masakratzen dutela. Jai egunetan, musikari handi guziak bazterturik, koroak ematen ditu aire meleka batzu. Tropiketako iguzki gogorrak lehertuak, apez ala girixtino, denak berdin nagituak daude, deus aldatzeko gogorik gabe», Iratzederri idazten dionaz.

Gero bere komentuan egon da 1995eko abenduaren 29an hil arte. 1970ean begi bat galtzen du, bainan ez da lanetik gelditzen osoki xahartu arte.

Jerusalem hiriaren kasko-kaskoan apaiztegia.

Nícolas Massi Said 1949-52ko ikasle ohiarekin.

Lantinzaleekin burrukan

Ekialdeko bi egonaldi horien artean hasten du bere lana euskal kantuaz. Euskarazko liturgiaren langile porrokatuenetarik baldin bada Gabriel Lertxundi, ekialdeko erritoko girixtinoekin iragan hamabi urteek badukete zer ikustekorik: 1947an mintzaldi bat egiten du Euskal Kongresuan, liturgia, tokian tokiko mintzairetan, eta beraz hemen euskaraz, egiteaz.

Ikusmolde berria. Iraultzalea zenbaiten ustez, latina baitzen elizako mintzaira bakarra, sakratua, ezin hunkia aspaldiko mendeetan. Latina hunkitzea, fedea bera hunkitzea, Elizaren batasuna zauritzea. 1954an, Mgr Terrier Baionako apezpikuak aurkeztu baitu Erroman latin-euskarazko bataio liburutxo bat, eza izaten du.

Lertxundik berak kondatzen du nola, Frantzia behere horietan, Saint Flour hirian iragan zen liturgia kongresu bat. Norbait ausartu zen proposatzera, ahal bezain polliki, meza ixiletan (eta haietan bakarrik! ez meza nagusietan!) ebanjelioa eta epistola lehenik latinez irakurtu ondoan, ez ote zitzakeen testu horiek berak, gero, frantsesez irakur apezak. Hor ziren apezpizku guziek, aho batez, eza borobila eman zioten horrelako proposamen lanjerosari.

Bainan horra! Gure Gabrielek beste zerbait bizi izana du Palestinan. Bera zegoen seminarioan, liturgia osoa siriarrez egiten zen eta ez latinez! Apez, apezgai eta girixtino horiek guziak, Madril edo Pariskoak bezain girixtino-

ak ziren eta haiek bezainbat Erromari atxikiak. Erromak girixtinotzat zeuzkan, beste edozein bezainbat.

Aita Gabrielek garbi aitortzen du 1947ko Euskal Kongresuan egiten duen mintzaldian:

> Betidanik eta Erromaren baimen osoarekin, Ekialdeko katoliko liturgia mintzairak dira eslabona, grekoa, armeniarra, siriarra, kaldearra, koptoa bai eta osagarri bezela, arabea ere. Horrek frogatzen du katolikoen batasuna eta liturgiako mintzairen aniztasuna elgarrekin joan daitezkeela.

Lertxundirentzat, historiako gertakari batzuen ondorioz, berak erraten duenaz, «ixtripu» baten ondorioz bezala da, Mendebaleko Elizaren liturgiako mintzaira bakarra latina izatea. Protestanteak berextearekin zen Erroma gogortu eta latinaz egin, batasunaren sinbolo nagusietarik bat. Oroitarazten du Trentoko Kontzilioak ez zituela beste mintzairak gaitzesten, baizik eta, latina baztertuz, «meza tokian tokiko minzairan bakarrik dela eman behar diotenak.»

Zinezko izpiritu zabala, ordukotzat erraten du salmoak garai batetako Ekialdeko kulturaren emaitzak direla. Ez direla denak, ez gaurko, ez guretzat egokiak. Ez litezkeela beraz horrela hitzez hitz kantatu behar. «Salmo gehienetan otoitzerako baliagarri den oso bertso guti da». Gaur egun guretzat on direnak hartu behar direla dio. 1952an Iratzeder itzulpen egiten ari delarik, idazten dio: «Lerroz lerro egiten duzu itzulpena? Ez luke girixtino kutsu handirik askotan. Ala 150 salmoetan hautatuko dituzu lemaka, lema bakotxari doazkion bertsuak? Beste hazkurririk liteke fedearentzat».

Senditua du, euskaldun bat ez dela baitezpada otoitzera ekarria bertsu hauek kantatuz. «Bertzen herriak diten gure» edo «Jaun Goikoak emanen ditu hilak metan, buruak ditu xehakaturen bazterretan». Edo oraino: «Beltzarana naiz bainan pollita. Horra zergatik nauen erregeak maitatu eta bere logelara eraman». Ekialdeko liturgia berezi horietan ez ote dituzte 150 salmoetarik 30 bat berexiak, Baliosenak idurituak zaizkienak.

Euskal kantua

Jerusalemeko lehen egonalditik sartzen delarik lan handia egiten du euskal kantuaren munduan. Frantziako elizetako liturgian haize berritzale batek ufatzen du. Iratzederrekin sartzen dira mugimendu horretan. Bera herriz herri dabila, elizetan ematen diren kantu guzien biltzen, hitz eta musika, herri bakotxeko berezitasunekin. 30 herri kurritu eta gelditzen da, jadanik bildu kantuetaz besterik ez baitu gehiago entzuten. Hemengo altxorra hustuxea du. Bestalde hor dauzka ere Piarres Lafittek bere aldetik, 1941an bildu 240 kantikak. Orotara 554 badira.

Altxor hori lantzen du gero Iratzederrekin; batek musika, besteak testuak. Lantzen du, lantzeko gai baita. Gorago erran bezala, musika ikasia du Lohiague apezarekin. Gero, berak segitu du lanean.

Begi xorrotx batekin irakurtuak ditu euskarazko kantika bilduma gehienak: 1630koa den Joanes Etxeberriren *Noelac eta Canta espiritual berriac*. «Berriac» hitz horretarik ateratzen du euskarazko kantika zaharragoak bazirela. *Egia Katolikoak* liburuaren aintzin solasean Gazteluzarrek dio: «Nola marinelek plazer hartzen baitute itsasoan, latinez elizako himnoen kantatzeaz». Hortarik ateratzen du XVI. mendekotzat kantatzen zela gure elizetan, latinez bada latinez.

Irakurtzen ditu ere ondoko mendean, 22 edizio izan zituen *Cantica Izpiritulac*. XVIII. mendeko *Misionetako eta erretretako kantikak* edo, gure aireak gregoriano moldean ematen dituen Hazparneko misionesten *Hazparneko Galbarioa*. S. Hiriarten 1905eko *Eskualdun eliza kantuak,* 200 kantikaren musikarekin.

Bainan ezagutzen ditu ere siriarren kantiken gainera, Frantziakoak, beren historiarekin. XIV-XV. mendeko Eguberriak, bai eta haien idazleak ere: Denisot, Saboly. XIX. mendeko Lambillotte eta Moreau batere ez ditu gustukoak. Mendez mende Frantzian barna baliatuak izanak ziren kantika bilduma gehienak eskutan ibiliak ditu.

Lertxundiren zenbait euskal kantu.

Doinu profanoak eliza kantu

Ohartzen da, XVIII. mendean herrikoiak bezala ekarriak diren kantiken aireak, lehenagoko amodiozko edo irri kantu batzuenak izan daitezkela. Edo berdin armadako edo ihiziko kantuenak. Aire profanoekin eliza kantuak egiteko ohidura, Eliza bezain zaharra dela: ezin hunkizko gregoriano sainduan berean, aire batzuk paganoei hartu zizkietela. Erramuz kantatzen zen *Hosanna*ren doinua kantu erotiko batena da! Bizkitartean ez zitekeen gregorianoko nota bakar bat aldatu, Erromako baimenik gabe!

Ala euskaraz, ala frantsesez hain herrikoia den *Gaur sortu da Jesus haurra,* Louis XV. Frantziako erregearen garaian, ihiztarien adarrek joiten zuten aire bat da. Gau erditan aingeruek, XVII. mendeko Eguberriko frantses kantu batena. *Beude bazter egun,* XVI. mendeko kantu profano batena. Bere *Agur Maria*-ren lehen herenarentzat Diharassarry apezak, Thomas Decker-en kantika bat hartu zuen.

Zeru Gorenetarik-en airea, Rossiniren *Mose en Egitto* operatik hartua da. Salbat Monho Isturiztarrak Iraultza garaietan idatzi *Aditzen da trompeta lazgarria,* XVII. mendean Louis Marie Grignon de Montfort sainduak egin kantu baten airea. *Zer dire gure egunak*-en aire berean kantatzen zen Frantziako kortean duela lauspost mende: Martzellatik Ternura joaten ziren arrantzale frantsesen ganik ikasia zuten euskaldunek!

Zeru Lurrak-en doinua Lous Thiloles XVIII. mendeko kantu gaskoinaren airea da, hau berriz latinezko himno batetarik hartua. Ez zen mugarik elizako eta beste kantuen artean. Gertatu da, amodiozko kantu batetan «Terexa»ren partez, «Maria» eman eta kantu hori Ama Birjinaren kantu bilakatzea.

Datu horiek denek erakusten digute zer-nolako ezagutza duen aita Lertxundik. Teoriak egiten dituelarik «Euskal kantuaz» ez da alde-aldera mintzo, bainan aski ikertu eta barnatuaren bortxaz, ongi menperatzen duen gaiaz.

Gure kantu profano herrikoietan ere asko eta asko ez direla euskaldunak dio. *Aintzina* aldizkarian agertu artikulu batean, oso geureak dauzkagun berrogei bat kanturen musika, kanpotik sartutakoak bezala ekartzen ditu. Eta zein! *Gernikako Arbola, Gazte gazte joan nintzen, Boga boga mariñela, Agur jaunak, Jeiki jeiki,* eta abar!

Kantika eta beren egile guzi horientzat, Lertxundik ez du esker handirik, hemeretzigarren mende ondarrean etorri zen Charles Bordes arte.

Bainan komentuetan eta seminarioetan kantika frantses horiek zituzten kantatzen gure apez eta serorek eta horietan xurgatu musika kulturarekin da egin Iparraldeko eliza kantuen altxorra. Lau kantiketarik hiru, gutiaski euskaldundu aire frantsesak omen dira!

XIX. mende ondarra arte, argirik gabeko garai hitsak bizi izan dituela Iparraldeko Elizak, dio Lertxundik, Frantsesen fotokopia egiteak zorionez betetzen zituela gure kantu egileak: Larregi, Monho, Goihetxe eta beste elemeniaren bertsokeriak aipatzen ditu. Biri baizik ez die baliorik ematen: Barbier eta Zaldubi.

Gaineratiko kantuei maingu aire bat aurkitzen die. Euskarazko bertsoentzat, aire frantsesek iduri dute aitonaren atorra semetxoarentzat edo semetxoarena aitonarentzat. Euskal Herriko elizetan euskal gogoari doazkion euskal hitzak nahi ditu, hauentzat egokiak diren aireekin.

Kantikak liburua

Iratzederrekin bakotxak bere lana egiten du. Bildu altxorrean, berak ikusten du zein kantu baztertu eta zein atxiki. Herri batetik bestera diren berezitasunetan, zein hobetsi. Iratzederrek bertsu zenbait zuzentzen ditu, beste batzuentzat bertsu berriak idazten. Lan hori bururatua delarik, 1948an ateratzen da *Kantikak* liburua, hitz eta musikekin Belgikako Desclée etxe famatuan inprima arazirik. 700 bat orrialde dauzkan liburu gotorra. Lehen 35 orrialdeetan aintzin solas aberats bat, kantuaz, euskal kantuaz eta eliza kantuaz bere jakitatearen laburpen bat egiten duela.

Mugerren kantatu ziren euskarazko lehen bezperak, Urrikariet erretore zela.

Ezkila musika agerkaria.

Kantikak eta *Igandetako Bezperak*.

Andima Ibinagabeitiak idazten du *Euzko Gogoa* aldizkarian: «Euskalerrietan eliz abestietaz egin dan libururik ederrena duzute noski».

Liburuaren mamia: 316 kantika, 371 aire: kantika berarentzat aire bat baino gehiago atxiki du baliagarri iduritu zaiolarik. Denei nagusi zaie *Anjelusa* 13 airerekin. Kantika askorentzat ohar zenbait bada: nondik datorren, zer aberastasun edo ahulezia duen, zer aldaketa izan duen bere historioan.

Zenbait ez ditu baztertzen, nahiz ez gustukoak, erroak sobera barna dituztelakotz gure elizetan, hala nola *Barka jauna* edo *Oi mirakuilu guziz; Iñaki* kantu famatuarentzat ohar hau ematen du «Parisko liburutegi Nazionalean aurkitu dut XVIII. mendeko marinaren martxa bat, aire ber berarekin». Ohar horri esker badakigu Parisko liburutegi nazionalean ibilia dela ikerketa egiten. 83 airerentzat ematen du zein kantu frantsesena den. Beste 288 aire euskaldun dira, beraz.

Berritze handia izan duen elizetako kantutegia atera digutela, ezin uka: 55 kanturentzat aire berria egin du berak; Iratzederrek aldiz 70entzat hitz berriak idatzi, batzuk Lertxundiren aire berrietan, besteak aire xaharretan. Aitortu behar da zenbaitek bazutela zuzenketa beharra: ez ote genuen kantatzen *Jesus dugu nahi aitatzat*. Nola hartzen ote zuen otoitz hori gure Aita Zeruetakoak?

Kantutegi horretan badira 53 hegoaldetik hartuak, bereziki Aita Donostiaren *Euskal Eres sorta* liburutik.

Arrakasta ttikiegia

Horrelako lanak ez du mereziko zukeen arrakastarik izaten: «Orain arte, Belokek egin lan miresgarriak ez du araberako erantzunik izan Euskal Herrian», dio Piarres Narbaitz bikario nagusiak, *Bulletin Docésain* apezpikutegiko astekarian, 1956an, zortzi urteren buruan.

Hori irakurtu eta, Lertxundik berak idazten dio Caracasetik Belokeko fraile bati: «Aitortu behar dut apezpikutegia hasten delarik ez dituela gauzak erdizka egiten (...) Egia osoa errateko, betiko tehentan segitzea nola goraipatua den eta gauzak diren bezela segitzea zein lasaiki onartua ikusteak, min egin dit. Ikusteak ere nolako "gizontasunarekin" egiten duten boikotea apez zenbeitek, bai eta horien monakofobia. Batzuren egin moldeak ez dira baitezpada zuzentasunaren araberakoak».

Zer gertatu da bada? *Le Livre* liburudendako mutxurdinek ez zutela gatz handirik saltzeko, entzun dugun bezala? Egia da, bainan, 7.000 elizako liburu salduak izan ziren 4 urtez! Apez zenbaiten aldetik ezazolkeria hutsa: kantu berriak ikasi behar ziren! Eta beti bezala segitu zuten, herri bakotxean eskuz idatzi kaierrekin eta paperekin. Beste batzuren aldetik bekaizkeria ere izan liteke: frailek erran behar ote zuten beren komentutik zer kantatu behar zen? Ez ote zegokien parropietan lanean ari zirenei kantu berrien egitea? 1965ean Montserraten egin kongresutik landa Narbaitz kalonjeak erran zuen

«Zenbeitek deitoratzen dute testo berriek iduri dutela kapera hetsi batetan eginak: badakigu Beloken nihon baino gehiago ateak deneri idekiak zaizkiela». Belokeko fraileekin herrietan predikatzeko lehian ziren Hazparneko misionestetarik ote ziren «zenbeit» horiek? Zerbait egin behar zela ohartu zirenean «zenbeit», gaitzeko lana egina zuten jadanik Beloken! Aitortu behar da nortasun handia duten gehienekin bezala, ez zela erretx Lertxundirekin aritzea lanean. Dena den, hil zelarik, beste edozein apezen ehorzketatan baino apez gutiago ikusi zen. Monakofobia?

Narbaitz aipatu baitugu gorago, Lertxundik idatzi du behin: «Orai, jaun Narbaitz norbait baitugu Baionako elizan, gauden beha gure alde jarriko delakoan».

Kantikak liburua, lehen urrats bat baizik ez da. Gero, bide beretik jarraikitzen dute: Iratzederren hitzak eta Lertxundiren aireak, bai eta beste zenbait apez eta laikoenekin agertzen dira kantu berriak *Otoizlari* Belokeko agerkarian. 1950ean sortu *Ezkila* beren argitaletxeak segitzen du «beharren arabera eta lan berriak egiten».

1985ean, hitzekin bakarrik, musikarik gabe, plazaratzen duten *Kantikak* deitu beste liburuak 328 kantika dauzka, horietarik 145 berriak: hauetarik 71n aireak, beste guziek elgarrekin bezainbat, Lertxundik eginak. Orotara 600 bat kantika egin ditu gure fraileak!



Lertxundiren musika arabezko testuarekin.

Euskal musikaz egin lana.

Salmoak eta bezperak

Liburu gotor bat, 856 orrialdetakoa, ateratzen du Iratzederrek aita Gabrielekin 1964ko Trufania (Epifania) egunean, Bilbon finantziatua eta Ordorika anaiek inprimatua: *Salmoak*. Iratzederrek euskaraz emanak ditu Bibliako 150 salmoak. Ez 30, Lertxundik aipatu bezala. Iratzader Estrasburgon izana da artean, 1956an iragan den liturgia kongresu batetan: «Han ohartu naiz (...) gauzarik baitezpadakoena Salmoen liburua dela. Liturgia berriaren erroa eta hazkurria: *Salmoen liburua*».

Lertxundik egiten ditu euskal moldean kantatzeko aireak. «Aire erretxak eta Euskaldunen bihotz beharrieri laket zaizkiotenak. Hamabi badire gure he-

Salmoak, Meza Nausia.

Meza sainduko kantikak eta abar.

rrietako bezperetarik hartuak, bertze hogoi eta hamar bat, euskal kantuei behatuz asmatuak» idazten du Iratzederrek liburuaren aintzin solasean. Artikulu batean berriz: «Lan handiena egin duen beneditanoa, haatik, aita Lertxundi. Bi urte osoz, goiz arrats, aritu da, otoitz aldien artean, salmoen musika asmatzen eta pertsu guziak argi eta garbi idazten; gero ez baitut fotoz ateratzeaz bertze lanik izan».

Bestalde, 145 airetan kanta daitezkeen 500 lelo badira liburu berean, salmoekin emateko. Liburu hori dute gero egokitzen gipuzkerari aita Baztarrikak eta bizkaierari aita Lino Akesolok, ez baita euskara baturik oraino!

«Horrela, bai Bizkaian, bai Gipuzkoan, bai Baztanen ere, aita Lerxundiren aireekin kantatzen dituzte salmo berriak», dio beti Iratzederrek.

Bainan lehenago ateraia zuten jadanik *Sakramendu Sainduaren Bezperak,* euskaraz. Mugerren eman ziren lehen aldikotz, Urrikarriet jaun erretorearekin, 1947ko urrian. Mugertarrak xoratuak gelditu ziren.

Emeki-emeki baizik ez dute latinezko bezperen tokia hartu euskarazkoek, ez baitzituzten aspaldiko ohidurak horrela eta horrela uzten zenbait apezek. Sakramendu sainduaren ondotik etortzen dira *Igandetako bezperak*. Errexkiago ikasteko, disko bat ere egiten dute 1962an, eta urririk edo dohain ematen, 100 liburuxka erosten dituzten parropia guziei. Hauetarik 8.000 saltzen dira 5 ediziotan!

Aita Lertxundi gaztea atsedenaldian.

Irakurgaiak nola kanta, Pasionea, Ehorzketak.

Meza euskaraz

Eta hona Kontzilioa. Beste ainitzek bezala, aita Lertxundik amensten zuena gauzatzen da: liturgia, tokiko mintzairetan egina izan dadien onartzen dute Erroman bildu apezpikuek. Lanaren parte handiena egina da hemen. Bi urte gabe denak prest dira. 1966ko testu guziak euskarara itzuliak dira eta Belokeko *Ezkila* argitaletxeak argitaratuak.

Bainan bakotxa bere alde ari da eta lau meza badira gure Euskal Herri ttipian, Nafarroakoa, Gipuzkoakoa, Bizkaikoa eta Iparraldekoa. Venezuelakoa bestalde! «Mingarri da ez baitute, liturgiako lan berrietan denek bat egoiteko indar bera egin», deitoratzen du Iratzederrek.

Erromak gaitu euskara batura ekartzen! Mintzaira bakotxarentzat molde bakar bat baizik ez dadien izan eskaturik, hego eta iparraldekoak biltzen dira. Denak berriz haste ala hitz, ala musika aldetik. Batasun osoa ez bada ere hurbilketa handia egiten da Euskal Herri osoan ordu arte egin itzulpenetarik. 1971n agertzen da aldareko liburu berria eta azken irakurgaiak 1978an.

Musika aldetik, denetan kantatuko den meza bat apailatzen dute, bat eta besten aireak hartuz lehiaketa baten ondotik. Lertxundiri iduritzen zaio ez diotela merezi zukeen tokia eman. Eta nolako musikariak ote ziren hautua egin dutenak, gogoeta zegoen.



Aita Lertxundi berriro Beloken.

Aire euskaldunak

Lertxundirentzat, kultura guziek agertzen dute beren nortasuna kantuetan. Hori garbiki ikusten du euskararentzat, aire arrotzak guretu ditugun moldean. Euskaldunek aire frantses bat ikasten dugularik, erritmoa aldatzen diogu, nota zenbait ere bai han-hemenka, kantuak beste itxura bat hartzen duela. Kantu arrotzean zerbaitek min egiten badio belarrian, bere baitarik, ohartu ere gabe, aldatuko du euskaldunak.

Euskal musikaren nortasuna zerk egiten duen zehazki erratea ez dela erretx, aitortzen du berak. Ezaugarri zenbait ematen ditu halere. Gure belarriak bi nota bata bestetik ez urrunegi izatea eskatzen du: tonu bat, bi, hiru normalean. Silaba bakotxak bere nota dauka. Segida kromatikoak ez ditu jasaiten eta ondorioz nekez sartzen du dieze bat. Molde «minorea» zaio gehienik gustatzen, bai eta hirukoitza. Tonu laurdenak ere sartzen ditugu. Edo zituzten! Musika tresnaz lagundua den kantariak ez baitezake horrelakorik egin.

Ainitzek edergailu bezela kantuetan sartzen dituzten fantesiak kendu behar bailitezke zenbaiten ustez, batere ez da ikusmolde horretakoa. Edergailu horiek gabe, haragirik gabeko hezurra iduri lukeela euskal kantuak, idatzi izan du: kantuari euskal nortasun bat ematen diote.

Meza Beloken.

Belokeko komentuaren alde bat.

Hogeita bi orrialdetako artikulu luze bat idazten du *Eusko Ikaskuntzan,* 1947an, euskal herrikantuaz. Bere harriduraren berri ematen du: ez dugu musikarekilako kantu bildumarik XIX. mende ondarra arte eta mami poxi bat duen lehen kantu bilduma, 1947an Piarres Lafittek egina da: *Kantuz* bere 120 kantuekin.

Idatzi dituen kantuek izanen dituzten aldaketez pozten da, kantu bat herrikoia bilakatzen baita, herriak aldatzen duen heinean. Alde guzietan aldaketa bera egiten badiote bere kantuari, egilearentzat zuhurtzia da aldaketa horiek bere egitea.

Artetik errateko, eliza kantuez gain, beste 40 bat kantu ere idatzi ditu, *Herri min*ez bildumako hamaseiak eta Marijan Minaberriren zazpi, besteak beste. Sorkuntza gustatzen zaio oraino gure kantutegia aberasteko molde bakarra delakotz. Ez daiteke zernahi kanta edozoin airetan: badira aire airosak eta tristeak; aireak hitzei egokitua izan behar zaizkio. Hitz berriei aire berria egokiago beraz.

Libanoko Behnan gotzaina eta lagunekin.

Antzerki kantua ere gustatzen zaio bereziki opera. Ez kantu zaharrak sartuz antzerkian, bainan opera bakotxari doazkion kantuak sortuz. XX. mendekoei ez die halako kalitaterik aurkitzen, kutsu italiano gehiegi daukatelakotz. XX. mendean idatziei die aurkitzen balioa: *Amaya, Perkain* eta *Juana* aipatzen ditu. Berak ere idatzi ditu, hala nola *Mortutik oihu* Jondoni Joani Batistaren bizia, edo *Pasionea*, Iratzederrek idatziak, Lertxundiren musikarekin.

Belokeko kalostra.

Komentuko hilarriak.

Gure kantu egile guziek gogoz jakin beharko lituzketen ohar batzu ere egin ditu musika eta hitzen arteko egokitasunaz, Euskaltzaindiako *Iker 2* aldizkarian, 1983an agertu «Le traitement des mots dans le chant en navarro labourdin non accentué aujourd'hui» artikulu luzean: 67 orrialde dauzka.

Era askotako musika egin du aita Lertxundik. Baina liturgiarako egin duena da ezagunena, Euskal Herriko eliza guztietan, iparraldekoetan eta hegoaldekoetan, kantatzen baitira haren kantuak. Euskarazko liturgiak zor handia dio Lertxundiri, aitortu zaion baino handiagoa, noski.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:

- *Gabriel Lertxundiren familia.*
- *Xipri Alberbide.*
- *Belokeko fraideak.*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 2001eko azaroa

Ale-kopurua: 2.425

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Joseba Olalde

Fotokonposizioa: E.P.S., S.L.
Beato Tomás de Zumárraga, 66 - 01009 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.
Bekolarra, 4 - 01010 Vitoria-Gasteiz

ISBN: 84-457-1712-X
84-457-1713-8

L.G.: VI-506/01

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco